

Zumalakarregi kalea peatonalizatzeko Ordenantza Arautzailea.

1. art.

1934ko irailaren 25eko dekretuan azaltzen denaren kalterik gabe, zeinen bidez onartu baitzen zirkulazioko kodea; Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren gaineko Oinarrien uztailaren 25eko 18/99 Legea; aipatu Legeko Testu Artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Erret Dekretu Legislatiboa; Zirkulazioaren Arautegi Orokorra onartzen duen urtarrilaren 17ko 13/1992 Erret Dekretua; Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren gaineko Prozedura Zigortzailearen Arautegi onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretua; Pasaiaiko Hiriko Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren gaineko Legehausteen Santzioen Ordenantza Orokor Arautzailea eta gainerako xedapen bateragile aplikagarriak, ordenantza hau izango da Zumalakarregi kaleko zirkulazioko arauak erregulatuko dituena.

2. art.

Zumalakarregi kalea oinezkoen zona bezala kontsideratuko da, eta beraz debekatua egongo da ibilgailuen zirkulazioa eta aparkamendua, hemen espreski aipatzen diren kasuetan ezik.

3. art.

Espreski baimenduak izango diren ibilgailuen kale honetako abiadura oinezkoen abiadurari egoikituko zaio, kontuan izanik beti oinezkoak izango direla igarotzeko lehenetsua dutenak.

4. art.

Merkantziak banatzeko ibilgailuen zirkulazioa baimendua egongo da, karga eta deskarga lanak egiteko bakar-bakarrik, goizeko 8etatik 13etara, ibilgailuen G.P.G. (gehieneko pisu baimendua) 3.500 kg-koa edo txikiagoa bada eta dimentsioak 2 metro zabal eta 5 metro luze.

Salbuespenez eta arrazoi justifikatua tartean, banaketa arratsaldean egin ahalko da aurrez baimena Udaltzaingoari eskaturik.

5. art.

Gauetz aparkatzea baimendua egongo da, 21:00etatik hurrengo eguneko 8:00ak arte, salbu jaiegunetan 10:00ak arte.

6. art.

Zirkulatu eta aparkatzeko mugak ez zaizkie aplikatuko udal-zerbitzuei, polizia, su-hiltzaileei, ambulanziei eta, oro har, zerbitzu publikoak prestatzeko beharrezkoak direnei beti ere zerbitzu-lanean ari badira.

Arautegi hau halaber ez zaie aplikatuko bertako eraikinen batera gaixoak edo elbarriak garraiatuko dituztenei, bizikletei eta zonan ubikatutako garajea erabiltzeko espreski baimenduak daudenei.

7. art.

Ordenantza honek aipatzen duen kalean aparkatzeko baimenik ez duten ibilgailuak garabiarekin erretiratu ahalko dira Pasaiaiko Hiriko Motoredun Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren gaineko Legehausteen Santzioen Ordenantza Orokor Arautzailea aplikatuz legokiokeen salaketaren kalterik gabe.

8. art.

Santzioak kudeatu eta kobratzeko prozedura aurreko artikuluan aipatzen den ordenantzan legez ezarritakoa izango da.

AZKEN XEDAPEN

Ordenantza hau indarren sartuko da Udalak behin betiko onartu eta bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatuko denean, Erregimen Lokaleko Oinarien Erregulazailea den apirilaren 2ko 7/85 Legeko 65.2 artikuluaerikiko seinalatzen den epea behin igarorik.